

Helburu didaktikoak	Ebaluazio adierazleak
<p>1. Zenbaki negatiboen izaera ulertzea, eragiketa aritmetikotan txertatuz, lehentasun arauak errespetatuz. Halaber, zatikietan ere negatibotasuna landuz.</p>	<p>1.1. Zenbaki osoen eta zatikien ezaugarriak baliatu ditu adibideak emateko, zenbakiak ordenatzeko eta eragiketak egiteko.</p> <p>1.2. Eragiketak egiteko algoritmoak eta lehentasun-arauak egoki aplikatu ditu.</p> <p>1.3. Argudio matematikoak era zuzenean eta idazkera egokiz adierazi ditu.</p>
<p>2. Berreketan oinarritutako adierazpen aritmetikoak eta bestelako adierazpen aljebraikoak eraldatu, eragiketak eginez eta propietateak aplikatuz.</p>	<p>2.1. Biderketaren eta berreketaren erlazioan eta azken horien propietateetan oinarrituz, berreketekin eragiketak egin ditu.</p> <p>2.2. Berreketen propietateak adierazpen konplexuak sinplifikatzeko erabiltzen ditu.</p> <p>2.3. Idazkera zientifikoko arauak zuzen aplikatzen ditu eta hauen eragiketak zuzen burutzen ditu berreketen propietateak baliatuz.</p> <p>2.4. Argudio matematikoak era zuzenean eta idazkera egokiz adierazi ditu.</p>
<p>3. Emandako magnitudeen artean erlazioak ezarri, haien formulak eta unitateak doitu eta magnitude berriak sortu, horretarako beharrezko eragiketak eginda.</p>	<p>3.1. Magnitude motak bereizi ditu eta dagozkien unitateekin erlazionatu ditu.</p> <p>3.2. Denbora magnitudeen arteko eragiketak egin ditu (batuketa, kenketa, biderketa eta zatiketa), beharrezkoa denean unitate-aldaketak bihurtzeko faktoreen bidez egin ondoren.</p>